



## **ZINEUSKADI 2021**

**“ZINEUSKADI”**  
ZE: 20-21

**“Erkidegoko eta Iberoamerikako filmen kopiak zinema-aretoetan  
sartzeko laguntzak emateko deialdia”**



## **1.- Deialdia**

Donostiako ZINEUSKADI elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarteak da eta 2002ko martxoaren 22ko elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoan eta 2007ko ekainaren 22ko Euskadiko elkartearen 7/2007 Legean ezarritakoa betetzen du. Legebiltzarrak onartu zuen lege hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9 eta 10.13 artikuluetan ezarritakoa betetz.

2020an zinema-aretoetara erkidegoko eta Iberoamerikako filmen kopiei iristen laguntzeko laguntzen ildo bat ezartzea interesgarria litzatekeela erabaki du elkarteak.

## **2.- Helburua**

Deialdi honen helburua **2020ko uztailaren 1etik 2021ko ekainaren 30erako** tartean erkidegoko eta Iberoamerikako filmen kopiak zinemetara iristeko laguntzak emateko oinarriak ezartzea da.

Filmaren antzintasunak bi urtekoa baino txikiagoa izan behar du, jatorrizko herrialdean estreinatzen dituztenetik zenbatzen hasita.

Deialdi honetarako, Europako film gisa hartuko dira batez ere MEDIA programako partaide diren estatuetan finkatutako konpainiek ekoiztutako filmak eta Iberoamerikako film gisa hartuko dira batez ere estatu iberoamerikarretan finkatutako konpainiek ekoiztutakoak.

Laguntza-deialdi honetatik kanpo geldituko dira publizitate-filmak, pornografikoak eta arrazakeriaren edo indarkeriaren apologia egiten duten filmak.

## **3.- Laguntzen modalitateak**

Hona hemen laguntzen modalitateak:

1.- Gehienez hiru pantaila dituzten aretoentzako laguntza. Kasu honetan, aurreko puntuan ezarritako denbora-tarterako erkidegoko eta Iberoamerikako filmek programazioaren % **30** gainditu behar dute aretoek laguntzak jaso ahal izateko.

2.- Hiru pantaila baino gehiago dituzten aretoentzako laguntza. Kasu honetan, aurreko puntuan ezarritako denbora-tarterako erkidegoko eta Iberoamerikako filmek programazioaren % **45** gainditu behar dute aretoek laguntzak jaso ahal izateko.



#### **4. - Onuradunak**

Laguntzak eskuratu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko zinema-aretoek, laguntza-modalitatearen arabera pantaila bat edo gehiago dituztenak, toki berean instalatuta eta enpresa-izen batean batuta daudenak. Urtean gutxienez, sei hilabetez zabalik egon behar dute eta leihatila eta diru-sarreraren sistema bat izan behar dute. Kultura Ministerioko Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuko zinema eta ikus-entzunezkoen enpresen erregistro administratiboan inskribatuta egon behar dute.

Ezingo dute deialdi honetan aurreikusitako laguntzarik jaso diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzeko zehapen penalarekin edo administrazio-zehapenarekin zigortutakoek edo horretarako ezgaitzen duen nolabaiteko lege-debekuren batean sartuta daudenek, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Gizon-emakumeen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken seigarren xedapenean finkatutakoari jarraiki.

#### **5.- Laguntzen norakoa, zenbatekoa eta muga**

Laguntza hauen helburuetarako diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira Europar Batasuneko edo Iberoamerikako filmen kopiak alokatzeagatik sortzen diren gastuak.

Deialdi honetan aurrez ikusitako laguntzetarako guztizko gehieneko zenbatekoa berrehun eta berrogei mila eurokoa (**240.000 €**) izango da eta **bi fasetan** banatuko da, honela:

- a) **120.000 €** Europar Batasuneko eta Iberoamerikako film-kopietara sarbidea izateko **2020ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra** bitarteko aldian.
  - b) **120.000 €** Europar Batasuneko eta Iberoamerikako film-kopietara sarbidea izateko **2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko ekainaren 30era** bitarteko aldian.
- **Laurogeita hamabost mila euro (95.000,00 €)** bideratuko dira gehienez hiru pantaila dituzten aretoen modalitaterako.
  - **Hogei mila euro (20.000,00 €)** bideratuko dira hiru pantaila baino gehiago dituzten aretoen modalitaterako.
  - Gainera, fase bakoitzean, **bost mila euroko (5.000,00 €)** kontu-saila bideratuko da “Zinema **Euskaraz**” programako filmen kopiak alokatzeagatik sortutako gastua diruz laguntzeko baldin eta 3. puntuan jasotako eskakizunak betetzen badira.

Deialdi honen arabera eman daitekeen laguntzaren gehieneko zenbatekoa, erakusketa-areto bakoitzeko, **20.000 €-koa** izango da. Laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, kontuan hartuko da balorazio-irizpideak aplikatu ostean erakusketa-areto bakoitzak lortutako puntuazioa.



## **6.- Laguntzak kudeatzeko erakundea**

ZINEUSKADI elkarteari egokituko zaio deialdian aurrez ikusitako diru-laguntzen kudeaketa egitea.

## **7.- Eskakerak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

**5.- a)** puntuan aipatzen diren eskaerak aurkezteko epea **2021eko martxoaren 15ean hasiko da, eta martxoaren 31an** amaitu.

**5.- b)** puntuan aipatzen diren eskaerak aurkezteko epea **15 egunekoa izango da; 2021eko uztailaren 1ean hasi, eta uztailaren 15ean** amaituko da.

Eskaerak I. eranskinean dagoen instantzia-ereduan formalizatuko dira eta zehaztutako dokumentazioa gehitu beharko zaio. Eskaera horiek ZINEUSKADI Elkarteko presidenteari bidali beharko zaizkio eta, deialdiko eranskinetan jasotako dokumentazioarekin batera, **helbide elektronikoa honetan aurkeztu behar dira: [info@zineuskadi.eu](mailto:info@zineuskadi.eu)**

Eskaerak aurkezteak deialdi honetako oinarriak ezartzen dituzten baldintzak modu formalean eta espresuki onartzea dakar berekin.

Areto bakoitzak azkenean lortutako puntuazioa aurreko atalaren arabera lortutako balorazio orokorra **2020ko uztailaren 1a eta 2020ko abenduaren 31** bitarteko aldiaren izandako saio kopuruaz zatituz ateratzen dena izango da **5.- a)** puntuan aipatzen diren eskaeren kasuan.

Areto bakoitzak azkenean lortutako puntuazioa aurreko atalaren arabera lortutako balorazio orokorra **2021eko urtarrilaren 1a eta 2021eko ekainaren 30a** bitarteko aldiaren izandako saio kopuruaz zatituz ateratzen dena izango da **5.- b)** puntuan aipatzen diren eskaeren kasuan.

## **8.- Aurkeztutako eskaeran akatsak konpontzea**

Laguntza-eskaera ZINEUSKADI elkarteko zerbitzu teknikora behar bezala beteta iristen ez bada, eskatzaileari akatsak konpontzeko eskatuko zaio. Eskakizun hori eskatzaileak jakinarazpenak jasotzeko emandako helbide elektronikoa bidez egingo da eta helbide horrek erabilgarri egon beharko du prozesu osoan zehar. Eskakizun horri erantzun ez eta eskatutako konponketa 10 egunetan egiten ez bada, proiektura aurkezteari uko egiten zaiola ulertuko da.



### **9.- Balorazio-irizpideak**

Laguntzaren zenbatekoak banatzeko, areto bakoitzak baloraziorako irizpideak aplikatu ondoren lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Hona hemen irizpide horiek:

- a) Jatorrizko bertsioa euskarazkoa duten erkidegoko filmen emanaldi bakoitzarengatik: **12** puntu.
- b) Jatorrizko bertsioa euskara ez den beste hizkuntza batekoa duten erkidegoko filmen emanaldi bakoitzarengatik: **8** puntu.
- c) Euskarara bikoiztutako eta jatorrizko bertsioan ez den erkidegoko edo Iberoamerikako filmen emanaldi bakoitzarengatik: **10** puntu.
- d) Jatorrizko bertsioan ez den erkidegoko edo Iberoamerikako filmen emanaldi bakoitzarengatik: **4** puntu.
- e) Jatorrizko bertsioan dauden Iberoamerikako filmen emanaldi bakoitzarengatik: **5** puntu.
- f) Erkidegoko eta Iberoamerikako 50 film baino gehiago eskaintzeagatik: **5** puntu.

Areto bakoitzak eskuratzen duen puntuazioa jakiteko, aurreko atalaren arabera eskuratutako balorazio orokorra **2019ko irailaren 1etik 2020ko martxoaren 12era** izandako saio kopuru osoarekin zatitu behar da.

5. artikuluan adierazitako zenbatekoa aretoek eskuratutako puntuazioen arabera proportzionalki banatuko da baliabideak agortu arte.

### **10.- “Zinema Euskaraz” programako filmen balorazio-irizpideak**

Kopuruaren (**10.000,00 €**) banaketarako areto bakoitzak lortutako erabateko kalifikazioa kontuan hartuko da, behin hurrengo balorazio-irizpideak ezarrita:

- a) “Zinema Euskaraz” programako laguntzari esker euskarara bikoiztutako/azpidatutako film baten pase bakoitzeko: **10** puntu.

Kopuru hau erakusketa aretoek lortutako kalifikazioaren arabera proportzionalki banatuko da esleitutako baliabideak ahitu arte.

### **11.- Bateragarritasuna**

Deialdi honen kargura emandako laguntzak xede bereko beste erakundeek emandako laguntzekin bateragarriak izango dira, diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik ez dagoenean, betiere. Hori gertatuz gero, laguntzaren zenbatekoa dagokion mugaraino murriztuko da gainfinantzaketa hori ez sortzeko.



## **12.- Emakida egiteko akordioa**

ZINEUSKADiko zerbitzu teknikoak deialdi honen laguntzen banaketa kudeatzen duenean, laguntzak emateko proposamena ZINEUSKADI elkartearen Zuzendaritza Batzordeari igorriko dio. Ondoren, elkarteko presidentek laguntzak emateko akordioa emango du.

Deialdi honetan aurrez ikusitako laguntzak emateko akordioa ZINEUSKADiren webgunean egingo da publiko jendeak ebazpenaren berri izan dezan, eta laguntzak eskatutakoei posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie ebazpena.

## **13.- Laguntzaren ordainketa**

Laguntzak aldi bakarrean ordainduko dira 14. puntuari adierazitako baldintzetan egindako jarduerak gauzatu eta behar bezala justifikatu ondoren.

## **14.- Justifikazioa**

Deialdi honetako laguntzen eskaerarekin batera, interesdunek ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte I. eranskinean adierazitako moduan:

- a) Diruz lagundutako proiektuan garatutako jardueren azalpen-memoria.
- b) Jardueren jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak, egindako jarduerak sortutako gastuak justifikatzeko.
- c) Diruz lagundutako kopiei buruz ICAARA bidalitako emanaldi-txostenaren kopia.
- d) Onuradunak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- e) Helburu berarekin eskuratutako laguntzen zerrenda.

## **15. - Onuraduraren betebeharrak**

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradunek ondorengo betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Esleitutako laguntza onartzea. Hori horrela, laguntza jaso izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost egun baliodunetan pertsona onuradunek laguntzari uko egiten ez badiote, laguntza onartu dutela ulertuko da.
- b) Laguntza emandako xede horretarako erabiltzea.
- c) ZINEUSKADI elkarteari diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan behar duen informazio guztia ematea.
- d) Diruz lagundutako proiektua deialdian aurkeztutako baldintzak betez gauzatzea. Hori guztia gorabehera, aldaketak egin ahal izango dira, baldin eta funtsezkoak ez badira. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio ZINEUSKADI elkarteari eta hark jakinarazpena jasotzen duen egunetik hamabost balioduneko epea izango du aldaketak



onartu edo gaitzesteko. Epe horretan jakinarazpenik jasotzen ez bada, aurkeztutako aldaketa onartu dela ulertuko da.

- e) Xede bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuk eskuratu badira, ZINEUSKADI elkarteari horren berri ematea, laguntza horiek edozein administrazio edo erakunde publikotakoak izanik ere.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura laguntzak eta diru-laguntzak jasotzeko ezarrita dauden beste obligazio edo betebeharrak guztiak.

### **16.- Ez betetzeak**

Ez betetze kasutzat hartuko dira honako hauek:

- a) Jasotako laguntzak deialdian aurreikusitakoez bestelako jardueretarako aplikatzea erabat edo partzialki.
- b) Deialdi honetan edo, hala badagokio, laguntza ematean ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- c) Kasuan kasu, laguntzaren likidazio-akordioan adierazitako zenbatekoa horretarako ezarritako epean ez itzultzea.
- d) Aurkeztutako proiektuan ZINEUSKADI elkarteak baimendu gabeko aldaketak egitea.
- e) Beste edozein xedapenek nahitaez bete beharrekotzat ezarritako beste edozein.

### **17.- Itzultzea**

Onuradunak diruz lagundutako proiektua gauzatzea behar bezala justifikatzen ez badu edo aurreko ataleko baldintzaren bat betetzen ez badu, ordaindu zaion diru guztia edo zati bat itzultzeko eskatuko zaio. Laguntza ordaintzen denetik dirua itzuli arte sortutako berandutza-interesak ere ordaindu beharko ditu proportzionaltasuna gordez.

### **18.- Helegiteak**

Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ZINEUSKADI elkarteko presidenteari, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hilabeteko epean, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan ezarritakoa betez.



## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen izapideetan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek tratatzeko eta argitaratzeko baimena emandako datuak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi horren helburua diru-laguntzen deialdi hau eta deialdi honekin zerikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea izango da; baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruzko informazioa ematea ere. ZINEUSKADI elkarteak da fitxategi honen arduraduna. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira ZINEUSKADI elkartearen aurrean. Horretarako idatzi helbide honetara:

### **ZINEUSKADI elkarteak**

TABAKALERA (3. Solairua)  
Andre Zigarrogileen plaza, 1  
20012 Donostia

Era berean, deialdi honetako partaideek baimena ematen dute aipatutako fitxategian gordetako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei emateko, deialdiaren helburuarekin bat datozen xedeetarako. Horrez gain, ZINEUSKADI elkarteari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan eskatzaileek aurkeztutako agirien benetakotasuna egiaztatzeko.

**Donostian, 2021ko martxoaren 12ean**

**ZINEUSKADI elkarteko presidentea**  
Aitziber Atorrasagasti Calcedo